



XXXXX UDALEKO GIZARTE ONGIZATEKO BATZORDEAN GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK AURKEZTEKO MODUARI BURUZ XXXXX UDALAK EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN IRIZPENA.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2011ko azaroaren 8an XXXXX Udalak bidalitako kontsulta-idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta-idazkiak honakoa zioen:

“Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko urtarrilaren 8ko 4/2011 Dekretuak zera dio: Gizarte-larrialdietarako laguntzak aldian-aldian emango ez diren prestazio ekonomikoak dira, eta haien hartzaileak hauek izango dira: gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezko diren gastu espezifikoak –ohikoak zein apartekoak– aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonak.

Laguntza horiek gizarte zerbitzuen departamenduaren bidez eskuratzen dira. Horretarako, dokumentu batzuk eskatzen dira, eskaera baloratzen da eta Gizarte Zerbitzuen Aholkularitza Batzordearen arloko teknikariek laguntzak emateko, ukatzeko edo ezesteko proposamena egiten dute.

2.- ESKABIDEA

Datu pertsonalak babesteari buruzko araudia kontuan hartuta eta laguntza-eskaerak aurkeztu behar direla kontuan izanda, ESKATZEN DUT argitzeko ea zein den Gizarte Zerbitzuen Aholkularitza Batzordeari datuak aurkezteko modurik egokiena:

Eskatzailearen datuak modu anonimoan aurkeztea

Eskatzailearen datuak aurkeztea, eskatzailea identifikatuz

Eskatzailearen datuak aurkeztea, baina inizialak bakarrik

Eskatzailearen aurkeztea, NAN zenbakiaren bidez

Edo beste moduren bat.

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen



17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari aurkeztutako kontsultako gai nagusia da ea nola aurkeztu Gizarte Zerbitzuen Aholkularitza Batzordearen arloko teknikariek laguntzak emateko, ukatzeko edo ezesteko egindako proposamena.

Gizarte larrialdietarako laguntzei buruzko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuak arautzen ditu gizarte larrialdietarako laguntzak.

Dekretuaren 17. artikulua azpimarratu nahi dugu, prozedura izapidetzeari buruzko delako:

“1.- Eskatzailea erroldatuta dagoen eta bizilekua bertan duen udalerriko udalak izapidetuko du espedientea.

2. Udalak eskabidearen edukia eta aurkeztutako dokumentazioa egiaztatuko ditu, baita gizarte-larrialdietarako laguntzak emateko baldintza espezifikoak betetzen ote diren ere.

Horretarako, beharrezkoak diren datu eta txosten guztiak eskatu ahal izango dizkie beste erakunde eta entitate publiko eta pribatuei edo eskatzaileari berari, eta prestazioa baliatzeko bete beharreko baldintzak eskatzaileak betetzen dituela egiaztatzeko ezinbestekoak diren etara mugatuko da. Era berean, ebazteko garrantzitsuak izan daitezkeen eta berak dauzkan dokumentuak erantsi behar dizkio udalak eskabideari.

3. Eskabidean akats edo kontraesanik atzeman ez gero, Udalak beste edozein datu, dokumentu nahiz txosten eska diezaioteko eskatzaileari berari nahiz beste erakunde publiko zein pribatu bati, espedientea osatzeko edo konpontzeko beharrezkoa dela baderitzo. Horrek ez du esan nahi, hala ere, beste Euskal Administrazio Publiko eskudun batzuek, aurrerago, hori bera konprobatu edo berraztertzeko beste ezer egin ezin dutenik. Udalak eskatzaileari idazki bidez adierazitako zirkunstantziak eskatzaileak 10 eguneko epean konpontzen ez baditu, eskabidea ezetsizat joko da, zirkunstantziak, gertakariak eta aplikatu daitezkeen arauak zehaztuko dituen ebazpena eman ondoren.



4. Eskatzaileak aurkeztutako gertakari edo frogez gainera, udalak beste batzuk ere kontuan eduki nahi izango balitu, entzunaldi horretarako izapideak egingo ditu, dena delako pertsonak arrazoibideak aurkezteko aukera izan dezan.

Prozedura hasteko, eskabide bat aurkeztu behar da udal bulegoetan, eta dekretuaren 18. artikulua dioenez, udalaren eginkizuna da eduki ekonomikoko eskubideak eta prestazioak egiaztatzea; eta, 19. artikulua dioenez, Udalak eman eta jakinaraziko du, hori emanez edo ukatuz.

Eusko Jaurlaritzako Dekretuak arautzen duen arren prozedura, ematen du prozedura udal egoitza batean izapidetzen dutela oso-osorik; beraz, ematen du datu-tratamenduak ere pertsona juridiko berak egingo duela. Hori hala bada, ezin da esan DBLOren 3 i) artikuluan xedatutako datu-lagatze bat denik, hau da, ez zaio "Interesduna ez den beste pertsona bati datuen berri ematen", datuak atzitu baino.

Edozelan ere, kontsultan aipatzen diren datu-tratamenduek DBLOren 4.1 artikulua xedatutakoa bete behar dute:

"Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko".

DBLOren 4. artikuluko datuen kalitatearen printzipioa betetzeko, Gizarte Zerbitzuetako Aholkularitza Batzordeak laguntzak onartzeko, ukatzeko edo ezesteko proposamenak osorik jasotzen baditu, hau da, laguntzen onuradunen edo laguntza ukatu zaienen datu identifikatzaile eta guzti jasotzen baditu, bete egin beharko da datuak babesteko araudia, eta informazio hori funtsezkoa izan beharko da batzordearen eskumenak burutzeko.

Gizarte Zerbitzuetako Aholkularitza Batzordearen eskumenak zein diren jakiteko, XXXXX udaleko web orrira jo behar izan dugu, kontsultan ez zigutelako azaldu zein diren. Beraz, behar beste informazio ez dugunez, ezin dugu seguru esan zilegi den ala ez Zerbitzuetako Aholkularitza Batzordeak datu horiek tratatzea, eta, ondorioz, XXXXX Udalak erabaki beharko du, Batzordearen eskumenak ikusita, datu horiek atzitzea zilegi den ala ez.

Esandako guztiaren ondorioz, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ondoko erabakia hartu du.

ONDORIOA

XXXXX Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Aholkularitza Batzordeari Gizarte Larrialdietarako laguntzak onartzeko, ukatzeko edo ezesteko proposamena aurkezteko, DBLOren 4.1 artikuluan aipatutako datuen kalitatearen printzipioa bete behar da, eta Batzordeak eskatzaileen identitatea jakiteko eskubidea izango du, Batzordearen eskumenak burutzeko ezinbestekoa bada informazio hori izatea.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko abenduaren 21ean